

92 URTE, URTEZAHARRETAN BARANDIARAN JOSEMIELEK

Bere edozein egunetariko bat igarotzen du gaur.*

Elkarrizketagile: Apalategi Begiristain: Joxemartin.

—A. J. M.: Barandiaranen etxeko sukaldean gaude bera, bere hiloba Pilar eta ni. Kanpoan eguraldi bustia dago. Barnean, berriz, hilobak ekonomikako su leunaz berotutako giro goxoan aurkitzen gara hirurok, antzera maiz sarri egon ohi garelarik azkenengo urte hauetan. Joxemiel jauna has zatzazkigu kon-
tatzen zure gaurko eguna, goizean jeiki zarenetik berriz oheratuko zaren arte.

—B. J. M.: *Goizetik hasita, goizean gaur ez naiz jeiki bestetan bezin laster, joandanez hamabost egunotan zerbait argaldua nabilelako. Beraz, ni jeiki-
tzerako baziren bederatziak. Eta gero jeiki, jantzi, garbitu ta, otoitzak egin on-
doren, joan naiz sukaldera ta han hartu dut gosaria. Ez dut meza eman goi-
zean geroko utziz, lehen esan dudana bezela, argalduz nabilelako.*

—A. J. M.: Eta normalki zein ordutan jeikitzen zara?

—B. J. M.: *Normalki ni jeikitzen naiz seiretan. Ta seiretan jeiki, garbitu
ta, jantzi ta, jexten naiz ta hartzen dut beti naranja ura, basoerdi bat, ta gero
hasten naiz otoitzean, beharrak bait ditut otoitzak. Brebiariorik egiten ditut
batzuek, eta beste batzuek berriz, nere buruz, pentsatuaz zer naizen, eta zerta-
rako. Orduan ikusiz zer behar dudana egin eta nola egun hartako nere bizikera
antolatzeko. Gero, bestetan, joaten naiz elizara zortzirak eta laurden gutxia-
gotan, ta zortziretan meza. Zortzi t'erdietan etortzen naiz etxera, handik bede-
ratziak arte gosalduz. Orduan hasten naiz nere lanetan.*

—A. J. M.: Gure gurasoei askotan entzun diedanez zortziretan goizero kan-
paiak jo ohi dituzu herri guztirako.

—B. J. M.: *Bai! Hiru! Hiru kanpai soinu, adierazteko meza heldu dela. Hori
adierazteko, eztago besterik! Ezta lagunaldi handirik izaten, bizpahiru lagun.
Baina meza ematen dut egunero. Bakarrik gaur ez naiz elizara joan garai hor-
tan, ezin nuelako.*

—A. J. M.: Gosari ondoren, zer egin duzu gaur Joxemiel jauna?

—B. J. M.: *Goizean etorri zait, esana zuten hala, gazte sail bat, maisu eta
maestra, irakasleak alegia! Neri galderak egitera etorri dira.*

—A. J. M.: Gaur ere lan askokin ibili zara, orratio!

—B. J. M.: *Bai! Lehena esan zuten neri galderak egitera etorriko zirela. Ba-
zuten beren gidari bat, eta gidari honek bazuen idatzita holako galde saila.*

—A. J. M.: Nongoak ziren irakasleak?

—B. J. M.: *Nik uste gehienak gipuzkoarrak zirela, ta euskaldun berri asko
esan dutenez. Hoiek bilduak ziren Altzagan, ta handik etorri dira. Hoiekin ba-*

* Egin egunkaririk jaso: 1981.12.31, osteguna.

tera etorri dira bi lagun: bat, erti lanean aritzen dena, bere izena Koldo Azpiazu, Debako erti lantegian egona lehenago, eta hori lagun batez etorri da bere magnetofonoa hartuta, nik maisu-maistrei egin behar nien hitzaldia dena magnetofonoan hartzeko asmoan. Bazekien hoiek etorri behar zutela eta neri eskatu zidan baimena etortzeko hori hartzea. Orduan hemen egon dira gure etxean, nere salan hamazazpi lagun.

—A. J. M.: Talde mordo handia!

—B. J. M.: *Aski handia, bai! Beren galderei buruz aritu gara hamarretatik ordu bata eta erdi bitarte. Orduan joan dira, eta ni ere sukaldera bazkaltzera.*

—A. J. M.: Eta zein ordutan bazkaldu ohi duzu normalki?

—B. J. M.: *Ordu batetan bazkaldu ohi dut normalki.*

Barandiaran jauna hizketan ari zaigun bitartean, bere hiloba Pilar, baita bera ere gurekin mahai ondoan eserita, gantxillon ari da, noizbehinka gu biori begirada irripartsu eta adikorraz begiratzen digularik. Zenbat bisitalarien testigu ote da Pilar hau! Berarik gabe ezin izango da inoiz ondo ondo ulertu osabaren bizikera, lana eta, azken batetan, nortasuna. Osabaren barnekaldeko lehen pertsona dugu, orain urte asko eta askoz gero. Barandiaran hitzun maitakor eta emanle agertzen zait, ez da ixiltzen eta ni ez naiz aspartzen berari entzuten, Euskalerrarentzat eta Munduarentzat aitala bilakatu bait zaigu larogehi eta hamabi urtekin.

—B. J. M.: *Orain galde egingo du batenbatek: zertaz mintzatu garen horrenbeste denboran?*

—A. J. M.: Zeri buruzko galderak izan dira irakasleek egindakoa?

—B. J. M.: *Egin dituzten galderak hauek batez ere izan dira: zer den euskal hezikera, gaurdaino guri iritxi zaigun eran, eta oraingo zertzu berri diren berari laguntzeko edo aurka datozkigunak. Nik esan diet zer den, nere ustez, hezikera edo kultura. Lehenengo hori. Bigarren, nola agertzen zaigun euskal hezikera edo kultura, esanaz badituela hezikera atal batzuk, ez dela gauza sinplea. Gizakiek duten galdera garrantzitsuenei erantzutea da hezikera, eta galde hoiek hauek dira: 1., nola bizi; 2., nola inguruko gauzak eta indarrak gure laguntzaile egin; 3., nola nere lagunurkoekin bildu, gero lagunurko hoiek ere laguntzaile izan daitezen; nola hoiekin adieratzi gure gogoetak; 4., gizakiak nor garen eta zertarako.*

—A. J. M.: Eta nola erantzuten diegu galdera hauei?

—B. J. M.: *Lehenengo galderari, nola bizi, erantzuten diegu bizikeraren bidez. Eta Euskal Herrian bizikerak izan dira hasi ehitetik, arrantzatik, eta gero baita ere abere zaintza, gero nekazaritza eta lehenengo lehenengotik, hoiekin batera hasita, olagintza, orain nagusitu dena. Hoiek dira Euskal Herrian ere hezikera duen lehenengo atala. Bizi ez garelarik, gainetikoak ez dira egiten.*

Hemen barrezka hasten gara Barandiaran jauna eta biok. Bere agerpena entzuten ari naizen bitartean zerataz oroitzen naiz: aspaldi aspalditik ezagutzera eman zuela Barandiaranek hezikera edo kulturari buruzko pentsamendua, eta gaur hainbat urte igaro ondoren pentsamendu berbera berragertzen digu. Kon-

tutan edukitzekoa, pertsona gutxi heldu ohi den bizitzaren ikustunetik ari ba tzaigu mintzatzen.

—B. J. M.: *Primun vivere esaten zuten lehenako latinoek ere, deinde philosophare. Hemen ere badira bizikera aski bereziak. Ehitza bera, lehen lehenautik, egiten zen hemen uxa ehitza bidez. Eta hori erabiltzen zutelaren oso ezaugarri asko badugu. Gaurdaino iritxi zaigu Euskal Herrian, eta ezagutzen dugu geuk uxa ehitza hori. Otsoekin egiten zen batipat, eta otxazuluetak badira oraindik Euskal Herrian. Nik neronek ikusi nituen: bat Gorbean, bestea Laburdi aldeko Artzamendin, Lacos monte izena duen mendian. Beste biziker bat: orain hamar mila urtetik honat aldakuntza handiak gertatu ziren ehitzean eta luraren emankortasunean, eta besazkurri bat, beste janari bat, beste giro bat, beste lanbide bat ekarri zituen.*

—A. J. M.: Aldaketa handien garaia izan zen hori, beraz.

—B. J. M.: *Bai! Horrek ekarri zuen beregan gizakia aldatzea: lehen, hemen, Neardenthal motako gizakia bazen, eta gero Cromagnon gizakia, Cromagnon gizaki hori zen gero orain dela hamar mila urte giroaren aldaketa etorri zenean aldatu zena, eta hemen ere aldatu zen eta aldaketaren buruz etorri ere berarengandik euskal mota. Orduan galdetzeak euskaldunak nondik etorriak diren ez du balio, bertan sortuak baitira. Erakutsi digu hori batez ere Debako Urtiagan guk egindako azterketak, han bilatutako giza hezurrak: nik eskuetan neronek atera nituen hezur hoiek 1935an eta 36an. Orain Museo San Telmon daude.*

Hamaika gauza ari zait esaten, eta denborarik ez daukat nik hori dena hemen aditzera emateko. Gogo eta indar guztiz mintzatzen zait Barandiaran. Esaten ari zaidan hainbat gauza ezaguna zaigu ia, bere idatzi eta hitzaldien bidez, baina oraindik ere asko eta asko daukagu berarengandik lehen aldiz jasotzeko. Eginkizun horren ardura gure gain dago, egungo Euskal Herriaren pertsonartearen gain. Euskarari buruz hara zer didan:

—B. J. M.: *Indoeuropeotarrek ihizien hezikera eratu zuten. Behar bada euskaldunek haietatik ikasi zuten, baina beste tokietan gertatu bezala ez zen hemen gertatu. Ez zituzten euskaldunek beraiengandik ekarri ihizi heziak. Itxura da euskaldunek egin zutena bertako basihiziak hezi, berta bertakoak. Esate baterako: basurdea, urde; basauntza, ahuntza; gero, behiak berdin egin zuten, zaldiekin ere. Horregatik ez dute europatar hizkuntzen izenik hemengo abere heziek, hoiek denak euskal izena dute.*

—A. J. M.: Beraz abereen hiztegiak ere esaten digu non heziak izan ziren hemengo abereak.

—B. J. M.: *Bai! Bertan heziak zirela. Horrek nahi du esan beste gauza bat ere: garai hortan, orain dela bost mila urte, euskaraz hitzegiten zela. Badira beste hitz batzuek ere aski adierazten dutenak beharbada askoz lehenagokoa dela euskara hemen, beharbada paleolitos garaikoa. Beharbada Cromagnon hemen mintza zen euskaraz eta beraren euskararen ondoria dela gure euskara, beharbada hori ere. Dena dela, orduko ohiturak orain Euskal Herrian ezagunak dira.*

—A. J. M.: Beste bizikeraz mintza zatzaizkit, Joxemiel jauna.

—B. J. M.: *Nekatzaritza aspaldi hasten da hemen. Badira harrizko atxurak. Errotarriak ere bilatu ditugu. Orduan lehen zerbait hasia zen nekazaritza, baina batipat burdinaroan gehiena hasi zen. Iruineatik behera, eguteraldetan, euskara egiten zen tokietan ere, hasi zen hedatzen nekatzaritza, gehiena behintzat. Beste hezikera bat da olagintza, oso aspaldikoa, tresnak egitea gizakia agertzen denetik agertzen da. Tresna oien bidez gehien bat ezagutzen dugu nolakoak ziren gizakiak.*

Beste galderak idazteko lekurik ezean, eta beste batetan emango ditudala jakinarazten dudalarik, egunaren beste orduak nolakoak izan dituen esateko eskatzen diot Barandiaran jaunari. Halere, hezikerari buruzko laugarren galderaz didana entzun diezaiozun:

—B. J. M.: *Galdera hau da: nor naiz eta zertarako? Hori da hezikeraren atalik garrantzitsuena oinarritzko hezikera, kultura fundamental. Bestea da lanabesen hezikera, kultura instrumentala. Euskaldunek zer eman dio oinarritzko hezikerari. Erantzuna, nik jasoa, hauxe da: ez naiz nere baitan, ez dakidala etorri naiz, eta gure gurasoak ere berdin, orduan gizakia ez dakiela etortzen da. Eta nahi badugu eta nahi ez badugu ere, gutxiena uste dudanean hemendik eramanez egingo naute besteei hala gertatu zaie eta niri ere bai. Beste baten baitakoa naizela esan nahi du horrek.*

Irakasle andana agurtu ondoren zer egin duen galdetzen diot:

—B. J. M.: *Lehenengo egin dudana izan da Madrilera telefonatu. Behar nuen hitzegin Eusko Ikaskuntzaren eginkizun bateaz Marcelino Orejarekin. Ez dut hitzegin, aitagarreba hil zaiolako ez baitzegoen bulegoan. Eta ordubietan bazkaldu dut gaur. Ordu batean bazkaldu ohi dut. Gero telebistako berriak entzun ditut. Elizara joan naiz, horrek ibiltzea ere behartu nauela, eta gero joan naiz nere jaiotetxera nere hiloba Maria gaixorik baitago, eta bere senarra Patxiri zorionak emateko, 76 urte. Gero, etorri naiz etxera, eta esne xorta bat hartu dut bosterdietan edo hola. Eta gero hementxe naukazu.*

A. J. M.: Pilar, esan iezazkiguzu gaurko zuon jatorduak.

—B. P.: *Gosaria: goizean osaba ohean zegoen eta lehendabizi eramanez naranja zumoa. Jeiki denean Colacao esnekin eman diot eta mermelada pixkat. Bazkaria genduen: purrupatatak purean, haragia tomatearekin, eta osabak baso bat esne eta nik konpota jan dut. Arratsaldean, osabak hartu du baso bat esne eta nik tea. Orain afaltzen daukagu: osabari egingo diot arraultza bat uretan pasauta eta Colacao esnekin, eta nik neronek hartu dut arraultza tortillea eta mandarina pare bat. Eta gero otoitzak egingo ditugu.*

—B. J. M.: *Baina apaldu baino lehenago egin behar duguna da lehen esanez duguna: Meza eman etxean. Badut baimena, larogehi urte bete nuenean eman zitzaidana. Ez dut ematen etxean gehienetan, etxean ez dut ematen gaixorik ez naizelarik. Eta hamarretan lotara joango naiz, eta bihar seiretan ez naiz altxatuko argaldua naizelako, lehen esan dizudan bezala. Horixe da gure eguneroko bizimodua. Igandeetan, trukean aritzen gara, eta hiloba Pilarrek erakutsia dakit, beste karta jokotan ez dakidala. Bestatzutan, ipuiak ere esaten ditut.*

Orduak aurrera dihoaz: arratsaldeko bosteterdietan heldu naiz eta zortziretan utzi ditut, Barandiaranek linterna bateaz kotxe ondoraino lagundu didalarik. Han gelditu dira gure egungo bi pertsona ezagunenetarikoak eta Jainkoak nahi izan dezala urte gehiagotan oraindik ere halaxe ibiltzea bikote harrigarri bezain ezinahantzia Euskal Herriaren historiarako.